

Laburpena

- ▶ Sarrera eta irteera arazoa
- ▶ Eskolaz Kanpoko eta eguardiko tartea
- ▶ Diru sarrera-irteerak
- ▶ Eskola Publikoaz harro kanpaina
- ▶ Atxuriko kantzak
- ▶ Ordezkaritza Organo Gorenerako hauteskundeak



BARRIKETAN

ATXURIKO IGEko aldizkaria



SARRERA ETA IRTEERAN TRAFIKOAREN ARAZOA

Kurtsoa hainbat arazorekin hasi ondoren, lortu genuen Udalak bidea moztea sarrera zein irteeretan 20 minutuz, eta busak zubian itxarotea. Hala ere, abenduaren hasieran Udaleko mugikortasun Sailak erabaki zuen atzera egitea eta trafikoa normaltasunez ezartzea.



Hori zela eta, mobilizazioekin hasi ginen berriro ere, eta bi guraso identifikatu zituen Ertzaintzak.

Mugikortasun Sailarekin biltzea lortu genuen (3 gurasok eta zuzendariak hartu zuten parte). Bi gai jarri genituen mahai gainean: berehalako irtenbidea irteera sarrerei, alegia, bidea moztea, eta gure eskolak trafikoarekin duen oinarrizko arazoari heltzea, COVID-19az harago

Egiturezko arazoei erantzuna: gaiari martxo aldean heltzeko konpromisoa hartu zuten. Deituko diegu bilera egin dadin.

Sarrera-irteerak: erantzuna izan da Mugikortasun Sailetik agindua pasa dutela busak geratzeko. Errealitatea, aldiz, honako hau da: Udaltzaingoak ez du agindu argirik trafikoa eteteko, eta patruilen esku dago erabakia (haien balorazioaren arabera). Busekin berdin gertatzen da, alegia, irizpideak jarraitzen du argia izan gabe. Egoera beraz, nahiko nahasia da, baina jarraitu beharko dugu trafikoa gelditzeko eskatzen, gure familien babesa bermatzeko.

Eskertzekoa da gurasook egunero erakutsi duzuen pazientzia eta lana! !

ESKOLAZ KANPOKOAK ETA EGUERDIKO TARTEA

Egoerak ezinezkoa egin du **eskolaz kanpoko ekintzak** eskaintzea arratsalde, orain arte ezagutu ditugun bezala. Espaziorik ez dugulako, burbuilak mantendu ahal izateko, eta eskola kirola debekatua egon edo ez, gure eskolak ez duelako espaziorik burbuilak bermatzeko.

Hori zela eta IGEk erabaki zuen gure kapitala (dirua eta lana), eguerdiko tarte bete eta haurrentzako eramangarriagoa egitera bideratzea. Eskolako jantokiko arduradunarekin batera, bi hileko iraupena izango duten ekintzak antolatu ditugu urritik: burbuilak mantenduz, eta unibertsalak-dohainik (izena eman behar da):



- Lehenego hiruhilekoetan: Eskulanak.
- Bigarreanean: Tailer emozionalak.
- Hirugarrenean: lotzeko.

Halaber, **euskararen erabilera indartzeko saioak** eskaintzen ari dira. Aurten bi talde atera dira, egoerak sortutako beharra asetzeko.

DIRU SARRERA-IRTEERAK

Horrek guztiak gastuak sortu dizkigu, eta honako hau proposatzen dugu: familiek kuota ordaintzea: 20 euro familiako

Honako **Kontu korrante zenbaki honetan** sartu dirua, haurraren izen abizenak jarrita:

ES9030350211152110021627

Ekintzetan gastatutakoa:

Lehenego hiru hilekoan 6000 inguru
Bigarren hiru hilekoan tailer emozionalak 4950 +
Euskara indartzekoak 5000 +
(oraindik azken hiru hilekoa falta da)

Sarrerak:

2100 Udaleko dirulaguntzak
3800 Diputazioko kirol ekintzen dirulaguntza +
940 Diputazioa IGErentzako laguntza +
Familien kuotak 1900

GURE ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO KANPAINA

Izurria heldu baino lehen, gure eskolaren gabeziak mahai gainean jarri genituen. Txosten batean bildu eta Udal talde politikoekin partekatu genituen, irtenbideak eskatzeko. Egoera horretan harrapatu gintuen COVID-19ak.

Kurtsoa hasi eta gure gabeziak azalarazi eta biderkatu zirenez, iaz abiatutako ekimenari jarraipena ematen hasi ginen. Mujikako Eskolarekin batera, gure auzoko hezkuntza publikoaren eskaintza bermatu dezaten aldarrikatu dugu: guztiontzat, eta kalitatezkoa. Ez ditugu gure haurrak gure auzotik kanpokoko eskoletara eraman nahi. Hemen hezi eta hazi nahi ditugu, gure eskubidea eta gure haurren eskubidea delako.

Ildo horretan, [mozioa \(klikatu hemen ikusteko\)](#) defendatu dugu Udalean iragan urtarrilaren 28an, gure auzoetako hainbat elkarteren babesarekin: Atxurigorri, Bihotzean, Bilbiko auzo elkarte, Solokoetxeko auzo elkarte, Iturrialde auzo elkarte, Lokomotorak, Ikama ikasle elkarte, Solokoetxeko eskolako guraso elkarte, 7 katu eta SOS Alde Zaharra.



Udalbatzara joan aurretik, gure Eskolako ama bat, Mujikako Eskolako ama batekin, Koldo Narbaiza, Euskara eta Hezkuntza zinegotziarekin bildu ziren. Udalaren jarrera argitu ziguten, ondoren Udalbatzarrean defendatu zutena:

-Ez zuten gure Mozioa onartu. PNVk eta PSEk haien [testu alternatiboa](#) onartu zuten ([klikatu hemen ikusteko](#))

-Haien testuak ez dio inondik inora erantzuten planteatutako arazo eta beharrei. Ez dute inongo alternatibarik jarri ditugun gabeziak konpontzeko. Hau da hain zuzen, Udalbatzarrean gure IGEko ordezkariak taldeetako zinegotzien aurrean defendatutakoa.

Edonola, bidean gaude eta lanean jarraitzea besterik ez dugu!!! Hilabete barru, Koldo Narbaiza

zinegotziak, Mujika eta gure Eskolako ordezkariekin hurrengo bilera batera deitzeko konpromisoa hartu zuen, hezkuntza publikoaren inguruan auzoak dituen beharrez hitz egiteko.

Balorazioa ez dugu soilik instituzioen erantzunetatik neurtu behar. Badakigu ez digutela bidea erraztuko, baina, antolakuntza gaitasun eta eredu egokia jarri dugu mahai gainean, hala uste dugu. Eta haiek badakite!

Gure mezua modu eraikitzailean aldarrikatzea besterik ez dugu; alternatibak baditugu eta!!!

ATXURIKO KANTXAK

Iaztik ibili bagara ere instituzioei espazio irekiak eskatuz, erantzuna gabon partean etorri zen. Horren ondoren, eskolak tartea behar izan du irteera hauek antolatzeko. Dagoeneko kantxak erabiltzen hasi dira antolatzeko. dira.



ORDEZKARITZA ORGANO GORENERAKO HAUTESKUNDEAK

Behin Ordezkaritza Organo Gorena osatuta, batzordeak martxan jartzea dagokigu. IGEk konpromisoa hartzen du batzordeen bilakaera gurasoei helarazteko.

Bestetik, OOG eta gure komunitatearen artean dagoen komunikazio gabezia gainditzea da gure erronketako bat. Aurten, bertan landutakoak guztiongana iristeko saiakera zintzoa egitea dagokigu bertan parte hartzen dugunoi.

